



2024KO EKAINAREN 05EKO 319. ALKATETZAKO DEKRETUA

IKUSIRIK: ARABA EUSKARAZ Elkartek, Arabako Ikastolen Federazioarekin eta herrialdeko 8 ikastolekin batera, 2024ko Araba Euskaraz eguna antolatuko du (2024ko ekainaren 16an).

GERTUA IZANIK: Araba Euskaraz Elkartek, Araban urteotan erakunde, elkarte, talde eta euskaltzale askoren eta askoren aspaldiko bultzadaz hainbat gauza egin izan ditu euskara sustatzeko.

GERTUA IZANIK: Jaiaren helburua, Araba osoan euskaraz eta euskal kulturaren hedapena ahanzi gabe, helburu Nagusia zera da, guztion ekarpena beharrezkoa den eremuan **Oiongo San Bizente Ikastola** garatzen ari den proiektua aurrera eramatea.

GERTUA IZANIK: ARABA EUSKARAZ Elkartek Araba osoan euskararen normalkuntza prozesurako urratsak egin ditu eta **ahal duen neurrian, Barrundiako udalerrian**.

GERTUA IZANIK: ARABA EUSKARAZ Elkartek, Euskararen normalizazio-prozesuan, edozein hizkuntzarenean bezalaxe, funtsezko funtzioa betetzen duten herritarrak ahalduentzeko erremintak inplementatu ditu.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENA.- ARABA EUSKARAZ Elkartea erakundeak aurrez aipatutako lan-ildoak udalerrian gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko Barrundiako Udalak 1.300,00 eurotako dirulaguntza luzatuko du (2024ko Aurrekontu Orokorretako 335.481.001 partida).

BIGARRENA.- Aurrenean aipatutako dirulaguntza berehala ordaintzea (Kutxabank- ES63 2095 3188 00 9119125991).

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau ARABA EUSKARAZ Elkartea erakundeari jakinaraztea.

Alkate jaunak agin eta sinatu du, nire, idazkariaren aurrean, eta nik horren fede ematen dut.

ALKATEAK,

IDAZKARIAK,

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor	05/06/2024 16:07
IGOR MEDINA ISASA	Alkatea / Alcalde	05/06/2024 16:15